

# → AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 27. atala

DATA: 2025/01/10

## GUREAN

### BIHOTZ URDINA

Bihotz Urdina kontakizun lehiaketan parte hartu dute gure ikasle batzuek, eta hiru izan dira saridunak: Maddi Mokoroa, Luxia Seguroa eta Laia Gratal. Cadena Ser eta Donostiako Aquariumek antolatutako literatur lehiaketa honek ozeanoen kontserbazioaren inguruan gogoeta egitera eta euren sormena kontakizun laburren bidez adieraztera gonbidatzen ditu gazteak. Erronka 100 hitz arteko kontaketa bat idaztea izan da itsasoen babesari buruz eta lehendabiziko edizio honetan, Maddik, Luxiak eta Laiak irabazi dute saria. Zorionak!



## GURE INGURUAN

### TALLER PUNTUALA: HILMA AF KLINT ETA ABSTRAKZIOA

**NON: HONDARRIBIA**  
**NOIZ: URTARRILAK 11**



"Hilma Af Klint eta abstrakzioa" tailer puntuala, Juncal Alfonsoren eskutik, Hondarribiko Artean Espazioan, 10:30etik aurrera. Plana 8 urtetik gorako haurrei, gazteei eta helduei zuzenduta dago.

### ERRALDOI ERRALDOI AK IKUSKIZUNA

**NON: LANDETXE KULTUR ARETOA (OIARTZUN)**  
**NOIZ: URTARRILAK 12**

Garena baino txikiagoak sentitzen gara askotan; gutxitan, garena baino handiagoak. Emanaldi honek ere badu txikitik zein handitik, txikitik handirako bidaiak erraldoia baita. Zuzeneko musika eta ahotsekin lagundutako ipuin kontaketa dramatizatua familia osoarentzat. Partaide ugari egongo dira: ipuin kontalari bat, dultzaina, erraldoi txikien konpartsakoak...

Sarrera: 5 euro

